



Apirilean hasiera eman diogu izen honetako proiektuari:

RV_Didactica: Aulas inalámbricas (WIFI 6) para Realidad Virtual, y aplicativo NO CODE para desarrollo sencillo de contenidos colaborativos.

Ministerio de Educación y Formación Profesional ateratako deialdiaren esleipendun den proiektua da, Lanbide Heziketan berrikuntza- eta ikerketa-proiektu aplikatuak egiteko eta ezagutza transferitzeko helburua duena, eta Europar Batasunak finantzatua, **Unión Europea – Next Generation EU**

Proiektuaren helburu nagusia da ezagutza sortzea eta partekatzea hezkuntzaren eremuan Errealitate Birtualeko Teknologiaren (RV) erabilerari buruz.

Helburu nagusi horrek berrikuntza teknologiko eta metodologikoko bi helburu orokor jasotzen ditu:

- Ikertu eta garatuko da hari gabeko RV soluzio teknologiko bat, erabateko posizionamenduarekin eta informazioa WIFI 6 bidez transmitituta.
- Hezkuntza-espazio berriak sortzeko arkitektura bat eraikiko dugu: hari gabeko RV ikasgelak, eta, era berean, tresna bat garatuko da RVn prestakuntza-edukia sortzeko, No-Code estandarrei jarraituz.

Proiektua elkarlanean ari gara garatzen Granollerseko **Carles Vallbona Institutuarekin**, eta Errealitate Birtualaren arloan erreferentea den **Virtualware** euskal enpresarekin.